**9. ENTITATEAREN OSASUN ARDURADUNA IZENDATZEKO EREDUA: KLUBEKO COVID ARDURADUNA.**

Izen-abizenak: ……………………………………………………………….……………,

adinez nagusia (NAN zenbakia: ……….………..………), entitatearen legezko ordezka-

ria izanik, ………………..………………….. IZENDATZEN DUT klubeko COVID ardura-

dun (NAN zenbakia: ………………………………….)

Honako hauek dira aipatutako entitateak klubeko COVID arduradun izendatutako pertsona horren ardurak:

1.–Prebentzio neurriak, jardutekoak, eta, kasua bada, diziplinakoak helaraztea entitatean eta NKJen programan aritzen diren langile eta/edo boluntario guztiei eta kirolarien familiei, kirolariak adingabeak badira. Bai hasierako informazioa, bai egiten den edozein aldaketa.

2.–Begiratzea NKJetan parte harten duen adingabe batek ere ez duela jarduera hasten familiak ez badu ezagutza, onespen eta konpromiso agiria sinatu eta entitateari igorri. Gauza bera gertatzen da teknikariekin eta arbitroekin, jarduera hasi baino lehen.

3.–Entitatearen jarduerak etengabe gainbegiratzea, bermatzeko betetzen direla protokoloan jasotako prebentzio eta higiene arloko neurri guztiak, baita agintaritza eskudunak ezarritako beste edozein arau ere.

4.–Jarduera koordinatzea eta behar diren komunikazioak izatea osasun-agintaritzarekin eta/edo ukitutako familiekin edo pertsonekin, COVID-19aren kasu bat atzematen denean edo pertsona batek sintomak dituenean kirol jarduera batean.

5.–Proposamenak egitea entitatearen barne-erregimeneko arautegira edo diziplina arautegira eransteko COVID-19ari aurre egiteko neurriak betetzeagatik sortutako arriskuen inguruko arau-hausteak, eta zuzendaritza organora edo gobernu organora igortzea hark onets ditzan.

6.–Proposatzea kasuan kasuko diziplina neurriak har ditzala entitatearen zuzendaritza organoak edo administrazio organoak, protokoloa betetzen ez denean.

7.–Egoki diren gestioak egitea protokoloari buruzko informazioa ager dadin entitatearen webgunean. Bai hasierako informazioa, bai egiten den edozein aldaketa.

8.–Protokoloari buruzko edozein informazio eskaera erantzutea.

9.–Protokoloaren etengabeko ebaluazioa egitea eta, kasua bada, doikuntza proposamenak igortzea entitatearen zuzendaritza organoari edo administrazio organoari.

Aldi berean, adierazten du baduela Nafarroako Kirol Jokoen protokoloan ezarritako higiene eta babes neurri berariazkoen berri.

........................(e)n, 20......(e)ko ........................aren ........(e)(a)n.

| ENTITATEAREN LEGEZKO ORDEZKARIA | KLUBEKO COVID ARDURADUNA, ADIERAZITAKO ERANTZUKIZUNAK BERE GAIN HARTZEN DITUENA |
|---|---|